



BERTSOLARIAK ORDAINTZEN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA 2023

Dirulaguntza honen helburua, Ipar Euskal Herrian saioen antolaketak sustatzea da eta, ondorioz, antolatzen diren saioetan bertsolariek merezi duten saria eskuratzen dutela. Bertsolaria hobetzen joan dadin eta bere maila mantentzeko trebatzea ezinbestekoa denez, denen egitekoa da bide horretan laguntzea.

Eskainia den laguntza hau, Euskal Kultur Erakundeak eta Bertsularien Lagunak elkarteak bertsolariak ordaintzen laguntzeko esleitzen dute.

Helburua, bertsularien bide fresak ordaintzeaz gain bertsolariek egiten duen lana saritzean eta aitortzean datza. Laguntza hau, irabazteko helbururik gabeko elkarteei eta enpresa ttipiei zuzentzen zaie, bakoitza bere aldaerarekin, ez da automatikoki esleitzen eta Bertsularien Lagunak elkarteak onartu beharko du. Gainera bertsoak funtzio zentrala duen ekitaldietarako soilik esleituko da.

Informazio zehatza eta formularioak:

Ipar Euskal Herriko bertsolaritzaren bilakaera baikorrak laguntza behar du oraindik ere. Bertsularien Lagunak elkarteak arlo desberdinetan sustatzen du honen garapena, izan haur/helduen bertso eskolak sortuz eta mantenduz, bide berriak asmatuz eta jorratuz edo bertsularien parte hartzea orokorrean lagunduz. Azken puntu hau kontuan harturik, bertsolariak bere lanagatik ordaina merezi duela barneratu behar dela uste dugu. Izan ere, gaur egun, ez luke nehork artistarik deituko zenbateko saria eskatzen duen galdegin gabe. Egia da bertsolariak ez duela musika tresnarik edo dekoraturik, baina horrek ez du erran nahi bertsoak ez duenik lanik galdegiten.

Bertsularien Lagunak elkarteak eta Euskal Kultur Erakundeak, **bertsolariek ordain duina jaso dezaten** elkarteei eta enpresa ttipiei zuzentzen zaie diru

laguntza esleitzen dugu. Hau diru laguntza soila da, hau da, ez du saioak finantzatzeko helbururik. Horregatik **ORDAINTZEN LAGUNTZEKO** laguntza dela argi gelditu behar da.

Horretarako azpian atxemanen dituzun irizpideak bete beharko dira, eta laguntza horren esleitzeko azken hitza Bertsularien Lagunak elkarteak izanen du.

ELKARTEENDAKO IRIZPIDEAK

Bertsolariak ordaintzen laguntzeko diru laguntza eskuratzeko irizpideak ondoko hauek dira:

- Dirulaguntza saioaren data baino 4 aste lehenago eskatu beharko da gutienez.
- Dirulaguntza eskuratzeko, kantuan Ipar Euskal Herriko bertsolari bat izan beharko da gutienez.
- Galdean bertsularien izenak agertzeaz gain saio mota zehaztu beharko da. Bertso afaria, saio musikatua, etxez etxekoa (kaxkarot, Santa Ageda...), libertimendua, kabalkada...
- Bertsularien Lagunak elkarteak eta EKEk antolatzaileari helaraziriko kopurua, antolatzaileak bertsolariei eman beharko dien bera izan beharko da gutienez; bertsularien sariaren erdia (gutienez) antolatzailetik eta beste erdia gure diru-laguntzatik eskuratzeko gisan. Hau da, Bertsularien Lagunak elkarteak bertsolari bakoitzeko 100 € emanez gero antolatzaileak bertsolari bakoitzari 100 € gehigarri eman beharko dizkio gutienez, jakinez laguntza gisa esleituriko gehienezko kopurua 300 €-koa izanen dela.
- Antolatzaileak Bertsularien Lagunak elkartearen eta EKEren logoak agerrarazi beharko ditu komunikazio euskarrietan. Irrati bidezko iragarpenetan aipamena egin beharko da.
- Saioa grabatzeko ahalegina egin beharko da eta Bertsularien Lagunak elkartearen esku utzi.
- Saioaren ondotik bertsolariek jaso duten kopurua agertzen duen ziurtagiria izenpetu beharko dute eta, antolatzaileak, usaiako bidetik edo molde desmaterializatuan Bertsularien Lagunak elkarteari helarazi beharko dio helbide hauetara: bertsularien-lagunak@bertsozale.eus eta bertsularien-lagunak.sustapena@bertsozale.eus.
- Bertsularien Lagunak elkarteak bertsularien sinadura duen ziurtagiria **ESKURATU ONDOTIK** helaraziko du antolatzaileari onartu zaion diru-laguntza.



Bertsolariak ordaintzen laguntzeko formularioa

* Elkartearen izena:

* Telefono zenbakia:

E-maila:

* Bertso saio mota:

* <u>Bertsolariak:</u>	-	-
	-	-
	-	-

* Gai emaila:

* Bertsolariko galdegiten den kopurua (300€ gehienez):

50€

75€

100€

(Ordainsariaren erdia bederen antolatzaileak eman behar du)

RIB zenbakia:

(Ordainketarako ezinbestekoa)

FR						
----	--	--	--	--	--	--

Ongi barneratua dugu bertsolariarek eman behar diegun kopurua gutienez jasotzen dugun kopuruaren heinekoa izan behar dela, laguntza ordainagiriak helarazi ondotik eskuratuko dugula eta gehienez 300 € jasoko dugula



**bertsularien
lagunak**

BERTSOLARIEK IZENPETZEKO FORMULARIOA

Nik, _____(e)k, _____ elkartearen eskutik _____ €
jaso dudala segurtatzen dut.

_____ (e)n _____ (e)(a)n

Izenpedura

Nik, _____(e)k, _____ elkartearen eskutik _____ €
jaso dudala segurtatzen dut.

_____ (e)n _____ (e)(a)n

Izenpedura

Nik, _____(e)k, _____ elkartearen eskutik _____ €
jaso dudala segurtatzen dut.

_____ (e)n _____ (e)(a)n

Izenpedura

Nik, _____(e)k, _____ elkartearen eskutik _____ €
jaso dudala segurtatzen dut.

_____ (e)n _____ (e)(a)n

Izenpedura

<http://www.bertsozale.eus/eu/xiberoa-lapurdi-baxenabarre>